



Lourdes'ko Erakusketa (esposición)

Datofen urtearen Jofailean Lourdes'en jafi nai dute elizgauza guzien erakusketa. Eliz-gauza ta apaingafiak egiten aritzen diran munduko ola edo fabrika guziak erakutsi ditzakete Lourdes'en beren lanak. An ikusiko dira ezkilak, organuak, apaiz-jantziak, elizontziak, irudiak, liburuak eta abar. Erakusketa au zein gafantzi aundikoa izango dan ikusteko, jakitea besterik eztago zenbat gozai (obispo), apaiz ta katoliko biltzen diran urtero Lourdes'en.

Katolikoak eta sozialistak.

Prantzi'ko efi batean (Villefranche-sur-Cher) prozesioa egitera zijoazten katolikoak, alkatearen baimena iritxi ta gero. Alkatea ordea damutu egin zan eta sozialista-komunisten gogoa egiteagatik, baimena kendu zien. Etzan Gotzaia ikaratu ta katolikoai agindu zien kalera ateratzeko; 8.000 atera ziran. Au ikusiaz, 80 sozialista prozesio auffman jafi ziran, beren «Internazional» kantatuaz. Katolikoak Kredoarekin erantzun zieten, ayen mañuak estaliaz. Norbaitek afia bota zuan Jauna zijoan aldera, baño etzan ezer gertatu; katolikoak nai zutena egin zuten, ta batez ere epelak bildufez zeudenak berotu.

Kartzelan gizon geyago, zergatik?

Prantzi'ko aldizkingi (revista) batek sariketa (concurso) bat egin nai izan du ta galdetu irakurleai ea zergatik dauden espetxe edo kartzelan emakume baño gizon geyago. Erantzupen obena ematen zuanari sari (premio) bat emango zitzaion. Sari ori emakume batek irabazi du. Zergatik dauden espetxean emakume baño gizon geyago? Ara zergatik, erantzun du emakume onek; elizan gizon baño emakume geyago izaten diralako.

Liburu zikiñak.

Liburu zikiñen kontrako lege bat eman dute Alemanian. Lege ofek afapatan dituen liburuak zenbat ote diran? *Bi mñoi* Zenbat zikinker! Zenbat anima galarazi ote dituzte liburu zikin! Lege ori nai etzutenak zituzten uste olako liburuak ainsteste ziranik, baña alaxe da, ministroak berak ala esan du ta.

On aundia egingo ote du lege ofek? Zer esanik eztago on egingo duela, baña ez bear litzaketen adiña. Lenbizi jende askok orain gogozago irakuñiko dituzte liburu oiek, gaiztoak direla ezagaturik. Beste aldetik beñiz biguñegia da lege ori, emezortzi urtez berako aufentzat bakafik debekatzen ditu liburu aiek. Zenbateko kaltea egin dezakete bada emezortzi urtez gorako jendetan? Ta gañera jende azien eskuetan ibili ezkeru, eraz da aufen eskuetara ere etortzea; ta